

## **GIZARTE EKINTZAKO KONTSEILU SEKTORIALA CONSEJO SECTORIAL DE ACCION SOCIAL**

### **BILERA-AGIRIA / ACTA**

<b>EGUNA / DIA:</b>	2019ko otsailak26
<b>ORDUA / HORA:</b>	10:30
<b>LEKUA / LUGAR:</b>	Donostiako Udaleko Pleno Aretoan- Salón de plenos del Ayuntamiento de Donostia
<b>BATZAR MOTA / SESION:</b>	Ohikoa-Ordinaria

### **BERTARATUTAKOAK / PRESENTES**

ARRATS  
ASADE ELKARTEA  
CAMELAMOS ADIQUERAR ELKARTEA  
GIPIZKOAKO EPILEPSIA ELKARTEA  
FAMILIA ZAINTZAREN ELKARTEA/ ASOCIACIÓN PARA EL CUIDADO FAMILIAR  
DONOSTIAKO CARITAS  
DONOSTIAKO CARITAS  
GIPIZKOAKO GIZARTE LANGINTZAREN ELKARGO OF. / COLEGIO DE. TRABAJO SOCIAL G.  
GURUTZE GORRIA  
ELKARTU  
GAUTENA  
GAZTEDI ESKU-HARTZE SOZIALAREN ELKARTEA  
GIELMAR, GIPIZKOAKO ELBARRIAK MARTXAN  
HURKOA FUNDAZIOA  
IRESGI  
NAGUSILAN - HELDUEN GIZARTE BOLUNTARIOTZA  
OSAKIDETZA DONOSTIALDEA  
SARGI/ORTZADAR  
ZORROAGA FUNDAZIOA  
EH BILDU  
PP  
IRABAZI DONOSTIA  
LEHENDAKARITZA  
IDAZKARIA  
GIZARTE EKINTZAREN ZUZENDARITZA / DIRECCION DE BIENESTAR SOCIAL

### **ESAN-EGINAK / DESARROLLO DE LA REUNIÓN**

<b>1.- Aurreko bilerako aktaren irakurketa eta, behar izanez gero, zuzenketa</b>  Eragozpenik gabe, akta onartu da	<b>1.- Lectura y rectificación del acta de la reunión anterior y su aprobación, si procede</b>  Es aprobada el acta sin ninguna objeción.
<b>2.- Kontseiluko Idazkaritzaren aldaketa eta idazkari berriaren izendapenaren berri ematea</b>  Lehenago idazkari Nerea Ibarrola lanpostuaren aldaketa dela eta, honi bere zerbitzuengatik eskerrak emanez, Nora Zugasti aurkezten da Gizarte Ekintzako kontseilu sektorialeko idazkari berri bezala.	<b>2.- Dar cuenta del cambio y nombramiento de la nueva Secretaria del Consejo.</b>  Es presentada Nora Zugasti como nueva secretaria del Consejo Sectorial de Acción Social, tras el nuevo cambio de puesto de la anterior secretaria Nerea Ibarrola.



<p><b>3.- Etxerik gabeko pertsonak: “ Etxerik gabeko Pertsonentzako Euskal jakinaraztea.</b></p> <p>Aitziber San Romanek, Kontseiluaren Lehendakariak, Iñigo Estomba, Gizarte Zerbitzuburuari hitza eman dio.</p> <p>Estomba Jaunak, power point baten laguntzarekin, Eusko Jaurlaritzak egindako estratejiaren atal garrantzitsuenak azaldu ditu. Estrategia horretara, hain zuzen ere, hainbat instituzioa gehitu dira, Donostiako Udala horien artean.</p> <p>Azalpena, hurrengo 4 atal hauetan oinarritu da:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Elaborazio-prozesua.</li><li>2. Atal garrantzitsuenak-</li><li>3. Neurriak eta Udalak nola egin dituen.</li><li>4. Erronkak: Horretarako, bertaratutakoen laguntza eskatzen da.</li><li>5. Errolda.</li></ol> <p>Aurkezpena amaitu ondoren, Lafuente jaunak hartu du hitza, Caritasen ordezkariak. Azaldu duenez, harridura geratu da zera ikusi duenean, estrategiak jasotzen duela, neurri posible gisa, etxebizitzarik gabeko pertsonen pisu bat partekatze aukera izatea. Caritasen ordezkariak gogoratu duenez, horrek arazoak ekarriko lituzke laguntza-prestazioak jasotzeko garaian; izan ere, halakoak jasotzeko irizpideetako bat bizikidetza unitateak dira. Horrenbestez, proposatu du prestazioek pisua partekatze aukera ere onartzea. Bestalde, Fuentes jaunak aitortu du badakiela hori ez dela Udalaren kontua.</p> <p>Aurkezpena amaitu ostean, Estomba jaunak erantzun dio, eta aitortu du badela denbora bat neurri hori kritikatzeko dela. Gaineratu du badela Udalaren laguntzaren bat, pisuetako bizikide kopurua kontuan hartzen ez duena. Dena dela, hark ere onartu du eragozpen handia dela hori.</p> <p>Ondoren, Tere Barrenetxeak hartu du hitza, Gizarte Ekintza Alorreko zuzendariak, eta gaineratu du hainbat egoera zehatzetan ez dela aintzakotzat hartzen bizikide kopurua.</p> <p>Halere, Estomba jaunak zera nabarmendu du, nahiz eta posible izan tutoretzapeko pisuetan arazorik ez izatea, helburua etxebizitzetara jotzea dela eta hor arazoa dagoela.</p> <p>Zerbitzuburuak jarraitu du, gogoraraziz Europako sailkapenaren oinarria dela pertsonen etxebizitzekin</p>	<p><b>3.- Personas sin hogar. “ Estrategia Vasca para personas sin hogar”.</b></p> <p>La presidenta, Aitziber San Roman, cede la palabra a Iñigo Estomba, Jefe del Servicio de Inserción Social.</p> <p>El Sr. Estomba, con la ayuda de un power point explicó los aspectos más relevantes de la estrategia elaborada por el Gobierno y a la cual se han adherido varias instituciones entre ellas el Ayuntamiento de San Sebastián.</p> <p>La exposición se centra en los siguientes 4 puntos:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Proceso elaboración</li><li>2. Aspectos principales.</li><li>3. Medidas, y forma de actuación del Ayuntamiento.</li><li>4. Retos: Para lo cual se solicita la colaboración de los presentes.</li><li>5. Empadronamiento</li></ol> <p>Tras finalizar la exposición, el Sr. Lafuente, representante de Caritas toma la palabra. Explica que le sorprende que en la propia estrategia se recoja como una posible medida que las personas sin hogar compartan piso. Recuerda el representante de Carita que ello conllevaría problemas a la hora de percibir prestaciones asistenciales ya que uno de los criterios para su concesión es la unidad convivencial. Por tanto, propone que las prestaciones también faciliten compartir piso. Sin embargo, reconoce el Sr. Fuentes que es consciente que no está en manos del Ayuntamiento .</p> <p>Finalizada la intervención, le responde el Sr. Estomba y reconoce que desde hace tiempo que se critica esa medida. Añade que existe alguna ayuda municipal en la cual no se tiene en cuenta el número de habitantes en los pisos. Sin embargo, de igual manera, admite que se trata de un gran handicap.</p> <p>Por su parte interviene, Tere Barrenetxea, Directora del Área de Acción Social para añadir que en ciertas situaciones concretas no se tienen en cuenta el numero de habitantes.</p> <p>Sin embargo, el Sr. Estomba, recalca que si bien es posible que en los pisos tutelados no haya problema el objetivo es que se acceda a vivienda y ahí los problemas son ciertos.</p> <p>Continúa el Jefe del Servicio recordando que la clasificación europea se basa en la relación de las</p>
--	--



<p>du ten harremana. Zehazki, lau maila daude.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Etxegabeak.</li><li>2. Etxebizitarik gabeko pertsonak.</li><li>3. Etxebizitza arriskutsua/desegokia.</li><li>4. Legezko etxebizitza.</li></ol> <p>Estrategia, hain zuzen ere, etxegabeengana eta etxebizitarik ez duten pertsonengana dago bideratuta.</p> <p>Arrats elkarteko Lasheras andreak hartu du hitza, azalduz gai horrexek kezkatzen duela, hain justu. Gaineratu duenez, nahiz eta strategiaren esparruan sartzen den, garrantzi bizikoa da neurriak hartzen hastea toki desegokietan bizi diren pertsonen dagokienez, nahiz eta etxegabeak edo etxebizitarik ez dutenak izan ez.</p> <p>Bestetik, Arrats elkartearen ordezkariak jarraitu du esanez ez dagoela ados bereziki emakumeekin lan egiteko izan den moduarekin. Zehazki, gustatuko litzaioke jakitea ea gizarteratzeko udal zerbitzua kontuan hartzen ari ote den aldagai hori; izan ere, adierazi du Aldundiak egin duela, eta hasia dela emakumeentzako bitarteko espezifikoa eskaintzen. Lasheras andreak kritikatu du a horrek hainbat berezitasun dituela, eta ez direla kontuan hartzen bitartekoetan.</p> <p>San Roman zinegotziak onartu du oraindik ere lan asko dagoela egiteko, eta, horrenbestez, erronketako bat dela. Jarraitu du jakinaraziz gizarteratzeko udal zerbitzuak otsailean bildu zuela informazioa, eta orain haren balioespina egiteko garaia dela. Lan horrek, haren esanetan, denbora apur bat eskatuko du.</p> <p>Estomba jaunak, berriz, gogorarazi du badirela hainbat bitarteko berezi emakumeentzat, hala nola gizarte larrialdietarako udal zerbitzuaren pisuak edota tutoretzapeko pisuak. Jarraitu du aitortuz oso zaila ikusten duela, nahiz eta planteatzen ari den, emakumeentzako bitarteko propioak sortzea, sarrerako ate gisa funtzionatuko dutenak. Hau da, eguneko zentroak eta abar. Amaitzeko, Estomba jaunak argitu du agian aurretik ez duela ondo azaldu. Kontua zera da, badirela pisu espezifikoa emakumeentzat, baina, aldiz, sarreta-ate moduan funtzionantzen duten zerbitzurik ez dagoela.</p> <p>SARGIko Rosa Rubiok hartu du hitza, eta azaldu du badela auzi bat bereziki kezkatzen duena, batez ere Elkarrekin elkarteak Aldundiarekin egindako bilera</p>	<p>personas con la vivienda. En concreto existen 4 niveles.</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Personas sin techo.</li><li>2. Personas sin hogar.</li><li>3. Vivienda insegura/ inadecuada</li><li>4. Vivienda legal.</li></ol> <p>La estrategia, en concreto, se orienta a las personas sin techo y sin hogar.</p> <p>La Sra. Lasheras, de Arrats, toma la palabra explicando que justamente le preocupa ese tema. Añade que aunque no entre dentro del ámbito de la estrategia es de vital importancia que se empiecen a tomar medidas en relación a las personas que aunque no sean sin techo o sin hogar también vivan en lugares inadecuados.</p> <p>Por otro lado, prosigue la representante de Arrats manifestando su disconformidad con como se ha tenido en trabajado en concreto a las mujeres. En concreto, le gustaría saber si el SIS está teniendo en cuenta esta variante ya que la Diputación por ejemplo si lo ha hecho y ha comenzado a ofrecer recursos específicos para las mujeres. Critica la Sr. Lasheras que esta atención tiene unas especificidades que no se tienen en cuenta en los recursos.</p> <p>La Concejala San Roman admite que aun queda mucho por hacer en este aspecto y que por ello, es unos de los retos. Prosigue informando que el SIS recabó información en febrero y que ahora toca valorar esa información, trabajo que requerirá algo de tiempo.</p> <p>El Sr. Estomba por su parte recuerda que si existen ciertos recursos específicos para mujeres como es el caso de los pisos SMUS y pisos tutelados. Prosigue reconociendo que ve muy difícil, aunque se está planteando, crear recursos propios para mujeres que sean puerta de entrada. Es decir, centros de día diurno etc . Para terminar aclara el Sr. Estomba que quizás previamente no se ha expresado bien. La cuestión es que si hay pisos específicos de mujeres pero, en cambio, no hay servicios específicos que sean puertas de entrada.</p> <p>Toma la palabra Rosa Rubio de SARGI y explica que hay una cuestión que le preocupa especialmente sobre</p>
---	--



batean parte hartu ondoren. . Zehazki, inorena ez den lurrean geratzen diren pertsonak kezkatzen dute. Hau da, bazterkeria egoera larrian aitortzen ez diren pertsonak, eta, horrenbestez, kontuan hartuko ez direnak.

Aitziber San Romanek azaldu duenez, onartu da Gipuzkoa eskualdetan eta eremutan banatzea, eta, horrenbestez, Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu dute Erakundearteko Mahaian, eskualdeetako udalerrien ordezkariak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak osatutako mahaian, alegia. Eskualde gehienek (guztiek, Donostiak izan ezik) Foru Aldundiari eskatu diote ardura dadila definitzeaz eta zehazteaz zer bitarteko garatuko dituen bazterkeriaren auzirako, nola eta zer baldintzatan. Eta Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu egin du.

Rubio andreak hartu du berriro ere hitza, eta zehaztu du benetan kezkatzen duena zera dela, Bigarren Mailako Arretak bazterkeria egoera larrian ez dauden pertsonen ezartzen dien iraungitze-data. Estomba jaunak azaldu du jarduketa hori pertsonaren egoeraren arabera izango dela: mendekotasuna, babesgabetasuna edo bazterkeria. Horren aurrean, Rubio andreak defendatu du pertsona bat egoera guztiotan egon litekeela. Hau da, pertsonak izan beharko luke, bere esanetan, erdigunea, eta harengana bideratu beharko lirarteke bitartekoak. Aitziber San Romanek hartu du hitza, eta azaldu du gero eta bitarteko integral gehiago eskatzen direla egoerak tratatzeko.

Lasheras andreak erantzun du kritikatz gaur egun egoera berean jarraitzen dugula. Zehazki, zerbitzuen zorrori egin dio erreferentzia, gaineratuz pertsona asko kanpoan geratzen direla. Gogorazi du jende asko dagoela kalean, eta, arrazoiren bat dela eta, ez direla bazterkeria larritzat jotzen. Hori dela eta, eskatu du banaketa hori ahalik eta bizkorren berrikusi beharra dagoela.

#### 4.- Udalaren lokalak eta lokalok elkarteei lagatzea

Tere Barrenetxeak, Gizarte Ekintza Alorreko zuzendariak, Udalaren lokalak elkarteei lagatzeko metodoa azaldu du. Zehazki, aurreko kontseilu batean jorrazteko eskatu zen gai hori, baina orain artean ez da lantzerik izan.

Oro har, zera azaldu du: ordezkariak politikorik gabeko Batzorde Tekniko batek esleitzen dituela lokal horiek. Erabakia hartu ostean, Tokiko Gobernu Batzarraren bidez egiten da esleipen formala.

Azalpena amaitu ostean, Gaztedi elkarteak Raúl

todo tras asistir a una reunión de Elkarrekin con la Diputación. . En concreto, le preocupan las personas que quedan en tierra de nadie. Es decir, las personas que no se consideran en exclusión grave y que por lo tanto no se tendrán en cuenta.

Aitziber San Roman explica que se ha aprobado la distribución de Gipuzkoa en Comarcas y Áreas ) y se ha aprobado, por tanto, el mapa de Servicios Sociales en el seno de la Mesa Interinstitucional conformada por los representantes de los municipios de las distintas comarcas y la Diputación Foral de Gipuzkoa. La mayoría de las comarcas (todas a excepción de Donostia) han solicitado a Diputación Foral que se encargue de definir y determinar qué recursos para la exclusión se deben desarrollar, dónde y cómo y la DFG ha aceptado

Toma la palabra de nuevo la Sra. Rubio y concreta que lo que realmente le preocupa es la fecha de caducidad que establece la Atención Secundaria a las personas que no están en exclusión grave. El Sr. Estomba explica que la actuación dependerá del tipo de la situación de la persona: Dependencia/ desprotección/ exclusión. A lo cual la Sr. Rubio defiende que una persona puede estar en las situaciones. Es decir, la persona debería ser el centro y destinar recursos. Aitziber San Roman interviene y explica que cada vez se solicitan más recursos integrales para tratar situaciones.

La. Sra. Lacheras toma la palabra y critica que a día de hoy estamos en la misma situación. En concreto se refiere ala cartera de servicios a la cual mucha gente se queda fuera. Recuerda que hay mucha gente en la calle que por algún motivo no es calificada de exclusión "grave". Por ello, solicita que este reparto competencia debe ser revisado lo antes posible.

#### 4.- Locales municipales y su cesión a las Asociaciones

Tere Barrenetxea, Directora del Área de Acción Social procede a explicar el método de cesión de los locales municipales a las asociaciones. En concreto, se trata de tema que se solicitó en un Consejo anterior pero que hasta ahora no se había podido tratar.

En líneas generales, explica que los locales que son adjudicados al área son adjudicados por un Comité técnico en el cual no hay participación política. Una vez realizada la decisión, la adjudicación formal se lleva a cabo a través del la Junta de Gobierno Local.

Finalizada la exposición, Raúl Giralde de la Asociación



Giraldések hartu du hitza, eta azaldu du era guztietako arazoak izan dituztela. Gaur egun, haien lokala suntsituta dago, eta alokairuko lokal batean daude. Horrenbestez, diru-laguntza gisa jasotzen duten zenbateko guztia errenta ordaintzera bideratzen dute, bertako langileak boluntarioak baitira. Horrez gain, azaldu du lokala partekatu ere egin dutela, baina joan beharra izan dutela, arazo ugari gertatu baitzaizkie. Hori dela eta, galdetu du ba ote den aukerarik lagatako lokalen bat eskuratzeko.

Zuzendariak azaldu du orain partekatutako lokalei ari zaiela lehentasuna ematen. Jarraitu du azalduz saiatzen direla bakoitzaren beharriak ez baliosten, baina kontuan hartzen direla ibilbidea eta artatzen diren kolektiboen kopurua. Finean, saiatzen dira irizpide objektiboak bakarrik aintzat hartzen; izan ere, maila teknikoan ezin da zehaztu elkarte bat garrantzitsuagoa ote den bestea baino. Gaineratu duenez, lokalen datu-basea berrikusi da orain gutxi, eta, gaur egun, aldaketaren bat egin beharko litzateke higiezinetan edota lokalen bat eskura ipintzen, ez baitago lokal bakarria ere erabilgarri.

ASADE elkarteko Pardo andreak hartu du hitza, eta esan du 2015ean eskatu zutela lokala. Gaineratu du haren sentsazioa zera dela, lokalak izan badirela, baina beti gizarte zerbitzuetara bideratzen direla. Azaldu du, gainera, haiek ez dutela inolako eragozpenik konpartitzeko eta beste alderdi batzuk ere hartu beharko lirakeela kontuan.

Bestetik, Pardo andreak aprobetxatu du Zaintza Kontseiluko hiru kideren presentzia, eta lokal handiago bat eskatu du emakumeen etxerako, kontuan izanda jende multzo handiari ematen zaiola arreta.

Zuzendariak azaldu duenez, emakumeen etxea ez dago gainerako elkarteen talde berean.

Gaztedi elkartearen ordezkariak hartu du hitza, eta adierazi du ez dagoela ados lokalak esleitzeko metodologiarekin, batez ere artatzen diren pertsonen kopuruari ematen zaion garrantziari dagokionez. Gainera, uste du garrantzitsuena lokala partekatzea dela. Horrenbestez, Giraldés jaunak informazioa eskatu du etorkizunean egingo denari buruz, ulertzen baitu jende batek egoera mesedegarria duela.

Gaztediren ordezkaria oso interesaturik azaldu da Kontadoreko lokalarekin; halere, zuzendariak azaldu du Aldundiak Udaleri lagatako lokala dela, eta haren jarduera mugatuta dagoela. Horrenbestez, jarduera mota aldatuz gero, lagatzeko hitzarmena ere aldatu beharra legokeela. Zuzendariak amaitu du esanez gaur egun ez dagoela lokalik libre; hala daudenak oso hondatuta daudela, eta berritzeko inbertsio handia egin beharko litzatekeela.

Gaztediren ordezkariak hartu du hitza berriro, eta azaldu du agian hori izango dela epe luzerako aukera;

Gaztedi toma la palabra y explica que han tenido todo tipo de problemas. A día de hoy su local está destrozado y están en un local de alquiler. Por lo tanto, todo el dinero que perciben de subvención va destinado al pago de la renta ya que todos los trabajadores son voluntarios. Además, explica que también han compartido local pero que han tenido que irse debido a los numerosos problemas que han tenido. Por ello, pregunta si existe alguna posibilidad de acceder a un local cedido.

La Directora explica que ahora se está dando prioridad a los locales compartidos. Prosigue explicando que se intenta no entrar a valorar las necesidades de cada uno pero si se tiene en cuenta la trayectoria y el número de colectivos que se atiende. En definitiva, se intenta tener en cuenta únicamente criterios objetivos ya que a nivel técnico no pueden determinar si una asociación es más importante que otra. Añade que recientemente se ha revisado la base de datos de los locales y que a día de hoy tendría que haber algún cambio inmobiliarios o que algún local se quedara disponible ya que no hay ningún local disponible.

La Sra. Pardo de la Asociación ASADE toma la palabra que ellos solicitaron local en el año 2015. Añade que su sensación es que si hay locales pero que al final suelen destinarse siempre a los servicios sociales. Explica, además, que ellos no tienen ningún tipo de objeción para compartir y que deberían tenerse también otros aspectos en cuenta.

Por otro lado, la Sra. Pardo, aprovechando la presencia de 3 miembros del Grupo de Cuidados solicita un local más grande para la casa de las mujeres teniendo en cuenta la gran cantidad de gente que se atiende.

La Directora explica que en caso de la casa de las mujeres no está en el mismo grupo que el resto de las asociaciones.

Interviene el representante de Gaztedi para mostrar su disconformidad con el método de adjudicación de los locales, sobre todo en relación a la importancia que se da al número de personas que se atiende. Además, cree que lo que prima es compartir local. Por tanto, el Sr. Giraldés solicita información a cerca de lo que se va hacer en el futuro ya que entienden que hay gente que está siendo favorecida.

El representante de Gaztedi también se muestra muy interesado por el local de contadores sin embargo la Directora le explica que se trata de un local cedido por la Diputación al Ayuntamiento y cuya actividad está limitada. Por lo tanto, en caso de cambiar el tipo de actividad, habría que cambiar el convenio de cesión. Concluye la Directora que a día de hoy no hay locales disponibles o los que hay, al estar muy deteriorados su reforma implicaría una gran inversión.





izan ere, bere kasuan adibidez, nahiago zuten inbertsioa egin diru laguntza alokairuak ordaintzen gastatu baino. Gainera, gogorazi du Eusko Jaurlaritzak ematen dituela diru laguntzak tankera horretako zaharberritzeetarako.

Arrats elkarteko ordezkariak hartu du hitza, eta azaldu du agian gai hori ez dela kontseilu honetako hizpidea, esparru soziala gainditzen duen aldetik.

Aitziber San Roman zinegotziak, berriz, azaldu du ulertzen duela frustrazioa, eta aitortzen duela gaur egun lehenetsuna gizarte zentroak eta adineko pertsonen elkarteak berritzea dela.

Halaber, EH Bilduren bozeramaileak hartu du hitza, eta azaldu du ez dagoela ziur ondo ulertu ote duen. Horrenbestez, galdetu du lokalen datu basea egiaz eguneratuta ote dagoen.

Tere Barrenetxea zuzendariak erantzun du, eta azaldu du datu-basea eguneratuta dagoela, baina arazoa zera dela, kudeaketa agian konplikatu samarra dela, gauza desberdinak jasotzen dituelako.

Bestalde, Gizarte Ekintzako zinegotziak gogorazi du Eusko Jaurlaritzak ere badituela lokalak, eta badagoela aukera eskaera egiteko.

Gaztediren ordezkariak hartu du hitza berriz, eta galdetu du aztertu ote den egoera horiek diruz laguntzeko aukera.

Alorreko zuzendariak azaldu du gaur egun diru-laguntzen bi lerro daudela, proiektuetara eta mantentze-lanetara bideratuta, baina ez inbertsioetarako.

Gaztedik amaitu du berretsiz haientzat egokiak direla Kontadoretoako lokalak ipintzeko.

##### **5.- Kontseiluaren funtzionamendua hobetzeko proposamena**

Zinegotziak azaldu du hiru proposamen jaso dituztela.

Lehendabizikoa, Gaztedik egina: proposatzen zuten parte hartzen duen elkarte bakoitzak bost minutuko aurkezpena egitea Kontseilu bakoitzean.

Batzorde Iraunkorrak, proposamena aztertu ostean, azaldu du egokiena zera dela, elkarte bakoitzak bere webgunea ematea, eta, halakorik ez daukanak, laburpen bat egin dezala. Hala, gaineratu du batzordeko kide guztiei helaraziko zaizkiela. Bestela, gehiegitxo luzatuko litzateke Kontseilua.

Zinegotziak bere helbide elektronikoa eman du, harekin elkartu nahi duen edozer pertsonak idatz ahal izan diezaion. Gaineratu du agian bilera ez dela segituan izango, baina saiatuko dela ahalik eta

El representante de Gaztedi interviene de nuevo y explica que quizás esa sea la opción a largo plazo ya que por ejemplo en su caso preferirían invertir antes que gasta la subvención en el alquiler. Además, recuerda que existen subvenciones del Gobierno Vasco para este tipo de restauraciones.

Interviene la representante de Arrats para exponer que este tema quizás no deba ser objeto de discusión en este Consejo al trascender del ámbito social.

La Concejala Aitziber San Roman por su parte explica que entiende la frustración y reconoce que en la actualidad la prioridad del área en mejorar los centros sociales y las Asociaciones de las personas mayores.

Por su parte el portavoz de EH Bildu toma la palabra y explica que no está seguro si ha entendido bien. Por tanto, pregunta si la Base de Datos de los Locales está realmente actualizada.

La Directora Tere Barrenetxea, responde y explica que la base de datos si está actualizada el problema es que quizás es algo complicada su gestión, porque recoge locales y situaciones muy diferentes.

Por su parte, la Concejala de Acción Social recuerda que el el Gobierno Vasco también dispone de locales y que existe la posibilidad de efectuar una solicitud.

El representante de Gaztedi, toma la palabra de nuevo y pregunta si se ha estudiado la posibilidad de subvencionar esta situaciones.

La Directora del área le explica que a día de hoy hay dos líneas de subvenciones destinadas a mantenimiento y proyectos pero no para inversiones.

Gaztedi finaliza la intervención insistiendo en que ellos si que podrían encajar en el local de Contadores.

##### **5.- Propuesta mejora en relación al funcionamiento del Consejo.**

La Concejala explica que se han recibido 3 propuestas.

La primera de ella de Gaztedi y proponían que cada Asociación participante efectuara una presentación de 5 min en cada Consejo.

Tras el análisis de la propuesta en la Comisión Permanente, la misma ha considerado que lo más adecuado es que cada asociación facilite su página web y las que no tengan que realicen un resumen y será enviadas a todos los miembros de la junta. De lo contrario, el Consejo se prolongaría demasiado.



bizkorren egiten.

Bigarren proposamena EH Bildu taldearena da, eta eskatzen zuen jorratu beharreko gai guztiei buruzko informazioa ematea, kontseiluan gai horiek landu daitezzen.

Aitziber San Roman proposamen horren alde agertu da, eta azaldu du proposamen horri esker landu dela gaurko bileran lokalen auzia, bere garaian eskatuta zegoena. Jorratzeke dauden gainerako gaiei dagokienez, zinegotziak azaldu du jorratzen joango direla.

Azkeneko proposamena AFAGI elkartearena da: kontseiluaren aktaren zirriborroa kontseilua egin eta hurrengo egunetan helaraztea eskatu du, eta, behin betikoa, berriz, hurrengo kontseilua egiteko deialdiarekin batera. Zinegotzia ados agertu da, eta gaineratu du, hala, parte hartzaile guztiek berriago izango dituztela jorratutako gaiak.

#### **6.- Berdintasuna**

Aitziber San Roman zinegotziak azaldu du gai hori jorratu beharrekotzat ipinita zegoela, baina Batzorde Iraunkorrera bertaratutako inork ere ez zuela gogoratzen zer jorratu nahi zen zehatz-mehatz.

Rubio andreak hartu du hitza, eta iradoki du gaia mahai gainean ipini zela, zainketen gaia landu zen garaian. Berdintasun Kontseiluko pertsona ugari zegoelako hitz egin zen hari buruz, eta pentsatu zutelako askotan gaia oso azaletik lantzen zela eta, agian, komeni zela honetan lantzea, gaineratuz badela manifestu bat atxikitze eta, horrenbestez, komenigarria dela haren berri izatea.

Lasheras andreak gogorarazi du etxez etxeko laguntza zerbitzua sail horren mendekoa dela, eta badirela hainbat gai Berdintasun Alorrak eta Gizarte Ekintzakoak elkarrekin lantzen dituztenak. Ondorioz, berretsi du garrantzitsua dela informatuta egotea.

Zinegotziak hartu du berriro ere hitza, eta proposatu du, hortaz, aurkezpen bat egitea hurrengo Kontseiluan eta manifestua bertaratutako guztiei helaraztea.

#### **7.- Bakardadea adineko pertsonetan**

Zinegotziak azaldu duenez, nahiz eta bakardadea ez den adineko pertsonen bakarrak eragiten dien arazoa, agian are gehiago larriagotzen dela kolektibo horretan, eta kezka handia dagoela.

Hori dela eta, proposatu du lan-mahai bat sortzea gai hori lantzeko eta helburuak ezartzeko. Horretarako, eskatu du mahaiaren esku hartzeko interesa dutenek

Por su parte la Concejala informó su correo electrónico para que cualquier persona que quiere reunirse con ella le escriba un correo. Añade que quizás la reunión no podría ser inmediata pero que trataría que fuera lo antes posible.

La segunda propuesta corresponde al Grupo EH Bildu y solicitaba que se informara sobre todos los asuntos pendientes a tratar para que fueran tratados en el Consejo.

Aitziber San Roman se muestra favorable a esa propuesta motivo por el cual en el Consejo de hoy se ha tratado el tema de los Locales, asunto que se solicitó en su día. En cuanto a los restantes asuntos pendientes, la concejala explica que se irán tratando.

La última propuesta es del A asociación AFAGI que propone enviar el borrador del Acta del Consejo en los siguientes días a la celebración del Consejo y la definitiva con la convocatoria del siguiente Consejo. La Concejala se muestra de acuerdo de esta manera todos los participantes tendremos más recientes los asuntos tratados.

#### **6.- Igualdad**

La Concejala Aitziber San Roman explica que este tema estaba anotado como para tratar pero ninguno de los presentes en la Comisión Permanente recordada exactamente que se quería tratar.

La Sra. Rubio interviene y sugiere que el asunto se puso encima de la mesa cuando se trabajó el tema de "cuidados". Se habló porque había varias personas del consejo de igualdad presente y se consideró que muchas veces el asunto se trataba muy por encima y quizás convendría tratarlo en este Consejo, añadiendo que existe un manifiesto al cual se pueden adherir y que por lo tanto es importante conocerlo.

La Sra. Lasheras recuerda que el SAD depende de este departamento, y hay otros temas que el área de igualdad y acción social trabajan conjuntamente. Consecuentemente, es importante estar informados

La Concejala retoma la palabra y propone, por lo tanto, efectuar una exposición en el siguiente Consejo y que se envíe el manifiesto a todos los presentes.

#### **7.- Soledad en las personas mayores.**

La Concejala explica que a pesar de que la soledad no es un problema que únicamente afecte a las personas mayores, quizás se agrava más en este colectivo y existe una gran preocupación.



<p>bidal dezatela elkartearen eta ordezkariaren izena.</p> <p>Luquin andreak, Gurutze Gorriaren ordezkariak, galdetu du beharrezkoa al den erakundearen ordezkaria berbera izatea kontseiluaren eta lantaldieran. Aldiz, erakundeko beste pertsona bat joan ote daitekeen. Zinegotziak baiezkoa eman dio azken puntu horri.</p> <p><b>8.- Galderak eta eskaerak</b></p> <p>Nagusilaneke Zaldua jaunak azaldu du benetan interesgarria iruditu zaiola Estomba jaunak egindako aurkezpena, etxebizitzarik gabeko pertsonen buruzkoa. Hori dela eta, eskatu du bidaltzeko aurkezpenean erabilitako dokumentazioa eta Udalaren betetze mailari buruzkoa.</p>	<p>Por ello, propone constituir una mesa de trabajo que trate investigue este tema y establezca objetivos. Para ello, solicita que los interesados en participar en la mesa envíen el nombre de la Asociación y su representante.</p> <p>La Sra. Luquin, representante de Cruz Roja pregunta si necesariamente tiene que acudir el representante de la entidad en el Consejo o por el contrato puede acudir otra persona de la entidad, a lo cual la concejala le responde afirmativamente.</p> <p><b>8.- Ruegos y preguntas</b></p> <p>El Sr. Zaldúa, de Nagusilan explica que le ha parecido realmente interesante la intervención del Sr. Estomba relativa a las personas sin hogar. Por ello, solicitado que se envíe la documentación utilizada en la presentación y el grado de ejecución en el Ayuntamiento.</p>
<p><b>Donostian, 2018ko martxoaren 7an.</b></p>	<p><b>En Donostia, a 7 marzo de 2018</b></p>

<b>Azaldu gabe geratu diren gaien jarraipena</b>	<b>Seguimiento de temas pendientes</b>
<p><b>1.- Erantzukizunen jarraipena</b></p> <p>Kontseiluko kideak, hartzen diren erantzukizunak aktetan jasotzearekin bat datoz, hauen jarraipen egoki bat egiteko. Gainera, aurreko bileraren akta irakurtzen denean, hartutako erantzukizunak erreparasatzea eta hauei dagokienez egiten ari garenaren berri ematea proposatzen da.</p>	<p><b>1.- Seguimiento de compromisos</b></p> <p>Los miembros del Consejo coinciden en que se debe recoger en las actas compromisos que se van adoptando para realizar un seguimiento adecuado de los mismos. Se propone además que cuando se lea el acta de la reunión anterior, se repasen los compromisos y se informe sobre lo que se está haciendo en relación a éstos.</p>
<p><b>2.- Aurreko bileretan sortu diren gaiak eta oraindik ere landu ez direnak:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>Bakardadea adineko pertsonengan</b></li><li>• <b>Egiako Lkaleak proiektuaren gaineko informazioa</b></li><li>• <b>Zaintzen gaineko proiektua, Berdintasun ataletik zuzendutakoa.</b></li></ul>	<p><b>2.-Temas que se han nombrado en reuniones anteriores y que están pendientes de abordar:</b></p> <ul style="list-style-type: none"><li>• <b>La soledad en las personas mayores</b></li><li>• <b>Información sobre el proyecto Lkaleak de Egia</b></li><li>• <b>Información sobre el proyecto de Cuidados liderado por Berdintasuna</b></li></ul>